



47/2023 ALKATETZAREN DEKRETUA

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2022ko irailaren 29an eginiko bileran, Debako Udaltzain-burua lanpostua izendapen askeko prozedura bidez hornitzeko deialdiaren oinarriak onartu zituen.

2022ko urriaren 11ean deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 2022ko urriaren 24an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oinarrien laburpena argitaratu zen, eta hautapen prozesua burutu ondoren, horretarako izendatutako epaimahaiak izendapen proposamena egin zuen.

Udal idazkariak 2023ko otsailaren 3an eginiko txostenean jasotzen da prozesua araudiak ezarritakoari jarraituz bete dela, eta dagokion ebazpen proposamena egiten du.

Behin prozesua bukatuta eta udal idazkariaren txostena ikusita, , a, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.1.h) artikuluan, ematen dizkidan eskumenak baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Berdintasuna, objektibotasun, merezimendu eta gaitasun-printzipioen arabera, eta lanpostuaren horniketa arautu duten oinarrietan eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, JULEN SALDIAS ONDARRA izendatzea Debako Udaleko udaltzain-buru lanpostua betetzeko.

Bigarrena.- Lanpostuaz jabetzeko epea hiru egun baliodunekoa izango da gaur egun betetzen ari den lanpostua utzi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko webgunean eta udal honetako iragarki-taulan argitaratzea.

Laugarrena.- Jakinarazi bekie ebazpen hau hautatutako izangaiari, beste interesdunei, langileen ordezkariari eta Udaleko kontu-hartzaileari.

Gilen Garcia Boyra
Alkatea

Jose Luis Salaberri Iñarra
Udal Idazkaria

Ebazpen hau elektronikoki sinatu da sinaduretan agertzen den egunean.